



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Zentsu ereduak

Erantsi beharreko agiriak

Aurkibidea

- 1.- **ALTA 036 eredua** – Eskaera: pertsona juridikoen eta beste entitate batzuen IFZ.
- 2.- **ALTA 037 eredua** – Eskaera: errentak esleitzeko araubidean dauden entitateen (EEAE) IFZ.
- 3.- **ALTA 036 eredua** – Eskaera: pertsona juridikoei eta beste entitate batzuei alta ematea zergadunen erroldan.
- 4.- **ALTA 037 eredua** – Eskaera: jarduera ekonomikoa egiten duten pertsona fisikoei eta errentak esleitzeko araubidean dauden entitateei (EEAE) zergadunen erroldan alta ematea.
- 5.- **ALDAKETA 036 eredua** – Eskaera: pertsona juridikoak eta beste entitate batzuk aldatzea zergadunen erroldan.
- 6.- **ALDAKETA 037 eredua** – Eskaera: jarduera ekonomikoa egiten duten pertsona fisikoak eta errentak esleitzeko araubidean dauden entitateak (EEAE) aldatzea zergadunen erroldan.
- 7.- **BAJA 036 eredua** – Eskaera: pertsona juridikoei eta beste entitate batzuei baja ematea zergadunen erroldan.
- 8.- **BAJA 037 eredua** – Eskaera: jarduera ekonomikoa egiten duten pertsona fisikoei eta errentak esleitzeko araubidean dauden entitateei (EEAE) baja ematea zergadunen erroldan.
- 9.- **ALTA, ALDAKETA ETA BAJA 009 eredua** – Eskaera: jarduera ekonomikorik gabeko pertsona fisikoen alta, aldaketa edo baja

Oharra: Agiri hau informaziorako baino ez da; Arabako Foru Aldundiak zentsu ereduak ebazteko beharrezkotzat jotzen dituen agiri guztiak eskatu ahal izango ditu.

1.- Eskaera: pertsona juridikoen eta beste entitate batzuen IFZ. 036 eredia

Atal honetan azalduko da zer agiri aurkeztu behar duten ohiko pertsona juridikoek eta entitateek:

ALTA	DOKUMENTAZIOA
<p>✓ Eskaera: Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (IFZ)</p> <p>IFZ lortu nahi dutenek hitzordua eskatu behar dute telefonoz (945181555, astelehena – ostirala, 8 - 14,30) edo internetez (www.araba.eus).</p> <p>036 eredia bete behar da laguntza programaren bidez; programa hemen eskura daiteke: www.araba.eus. Dokumentazioa norberak eraman behar du Arabako Foru Ogasunera.</p>	
<p>❖ Sozietate anonimoak “SA” (IFZko A letra), erantzukizun mugatuko sozietateak “SL” (B), lan sozietate anonimoak “SAL” (A), lan sozietate mugatuak “SLL” (B), talde sozietateak “SC edo SRC” (C) eta sozietate komanditario arruntak “S. kom” edo akzio bidezko sozietate komanditarioak “A.b.s.kom.” (D)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Eraketaren eskritura publikoa, sozietatearen jardunerako aplikatuko diren estatutuak jasotzen dituen, jatorrizkoa eta kopia baimendua eta fotokopia. • Merkataritzako Erregistroko inskripzioaren ziurtagiria (horren ezean, nahiko izango da erregistroko inskripzioaren zigilua daukan eskritura publikoa). Aurkezten ez bada, behin-behineko IFZ esleituko da. • Zentsu aitortpena sinatzen duen pertsonaren identifikazio fiskaleko zenbakiaren fotokopia; sinatzailea sozietatearen ordezkaria izan behar da. • Zentsu aitortpena sinatzen duen pertsona sozietatearen legezko ordezkaria dela frogatzen duen agiriaren fotokopia (sozietatearen eraketa eskrituran agertzen bada, ez da beharrezkoa).
<p>❖ Kooperatiba sozietateak “Koop. soz.” (IFZko letra: F)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Eraketaren eskritura publikoa, sozietatearen jardunerako aplikatuko diren estatutuak jasotzen dituen, jatorrizkoa zein kopia baimendua eta fotokopia. • Kooperatiben Erregistroko inskripzioaren ziurtagiria (horren ezean, nahiko izango da erregistroko inskripzioaren zigilua daukan eskritura publikoa). Aurkezten ez bada, behin-behineko IFZ esleituko da. • Zentsu aitortpena sinatzen duen pertsonaren identifikazio fiskaleko zenbakiaren fotokopia; sinatzailea sozietatearen ordezkaria izan behar da. • Zentsu aitortpena sinatzen duen pertsona sozietatearen legezko ordezkaria dela frogatzen duen agiriaren fotokopia (sozietatearen eraketa eskrituran agertzen bada, ez da beharrezkoa).

<p>❖ Eraldaketarako nekazaritza sozietateak “ENS” (IFZko letra: V)</p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Eraketaren eskritura publikoa, sozietatearen jardunerako aplikatuko diren estatutuak jasotzen dituen, jatorrizkoa zein kopia baimendua eta fotokopia (ondasun higiezin edo eskubide erreala aurkeztuz gero bakarrik behar da eskritura publikoa). ● ENSen erregistroko inskripzioaren ziurtagiria (horren ezean, nahiko izango da erregistroko inskripzioaren zigilua daukan eskritura publikoa). Aurkezten ez bada, behin-behineko IFZ esleituko da. ● Zentsu aitortza sinatzen duen pertsonaren identifikazio fiskaleko zenbakiaren fotokopia; sinatzailea sozietatearen ordezkaria izan behar da. ● Zentsu aitortza sinatzen duen pertsona sozietatearen legezko ordezkaria dela frogatzen duen agiriaren fotokopia (sozietatearen eraketa eskrituran agertzen bada, ez da beharrezkoa).
<p>❖ Interes ekonomikoko elkarteak “IEE” (IFZko letra: V)</p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Elkartzea formalizatu duen eskritura publikoa, jardunerako aplikatuko diren estatutuak jasotzen dituen, jatorrizkoa zein kopia baimendua, eta fotokopia. ● . Merkataritzako Erregistroko inskripzioaren ziurtagiria (horren ezean, nahiko izango da erregistroko inskripzioaren zigilua daukan eskritura publikoa). Aurkezten ez bada, behin-behineko IFZ esleituko da. ● Zentsu aitortza sinatzen duen pertsonaren identifikazio fiskaleko zenbakiaren fotokopia; sinatzailea elkartearen ordezkaria izan behar da. ● Zentsu aitortza sinatzen duen pertsona elkartearen legezko ordezkaria dela frogatzen duen agiriaren fotokopia (elkartearen eraketa eskrituran agertzen bada, ez da beharrezkoa).
<p>❖ Elkarteak (IFZko letra: G)</p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Jatorrizko eraketaren akta, publikoa zein pribatua, eta fotokopia; aktan eratzeko erabakia eta estatutuak jaso behar dira. ● Zentsu aitortza sinatzen duen pertsonaren identifikazio fiskaleko zenbakiaren fotokopia; sinatzailea elkartearen ordezkaria izan behar da. ● Zentsu aitortza sinatzen duen pertsona elkartearen legezko ordezkaria dela frogatzen duen agiriaren fotokopia (elkartearen eraketaren dokumentu publikoan edo pribatuan edo estatutuetan agertzen bada, ez da beharrezkoa).
<p>❖ Kirol taldeak (IFZko letra: G)</p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Eraketaren akta, sustatzaileek sinatua eta notarioaren aurrean egiletsia, eta estatutuak, jatorrizkoak zein fotokopiak, edo eraketaren dokumentu pribatua (sustatzaileak zehaztuta), jatorrizkoa zein fotokopia. ● Kirol elkarten erregistroko inskripzioaren ziurtagiria. Aurkezten ez bada, behin-behineko IFZ esleituko da. ● Zentsu aitortza sinatzen duen pertsonaren identifikazio fiskaleko zenbakiaren fotokopia; sinatzailea zuzendaritzako karguduna edo legezko ordezkaria izan behar da. ● Zentsu aitortza sinatzen duen pertsona kirol taldearen legezko ordezkaria dela frogatzen duen

	<p>agiriaren fotokopia (elkartearen eraketaren dokumentu publikoan edo estatutueta agertzen bada, ez da beharrezkoa).</p>
❖ Kirol federazioak (IFZko letra: G)	<ul style="list-style-type: none"> • Eraketa akta, sustatzaileek sinatutako eta notarioaren aurrean egiletsia, eta estatutuak, jatorrizkoak zein kopia baimenduak, eta fotokopiak. Bai akta, bai estatutuak bidezko aldizkari ofizialean argitaratu behar dira. • Kirol elkarten erregistroko inskripzioaren ziurtagiria. Aurkezten ez bada, behin-behineko IFZ esleituko da. • Zentsu aitortpena sinatzen duen pertsonaren identifikazio fiskaleko zenbakiaren fotokopia; sinatzailea zuzendaritzako karguduna edo legezko ordezkaria izan behar da. • Zentsu aitortpena sinatzen duen pertsona federazioaren legezko ordezkaria dela frogatzen duen agiriaren fotokopia (elkartearen eraketaren dokumentu publikoan edo estatutueta agertzen bada, ez da beharrezkoa).
❖ Fundazioak (IFZko letra: G)	<ul style="list-style-type: none"> • Eraketaren eskritura publikoa, jardunerako aplikatuko diren estatutuak jasotzen dituen, jatorrizkoa zein kopia baimendua eta fotokopia, eta fundazioa sortu duten pertsona eta erakundeen identifikazioa. • Fundazioen erregistro egokiko inskripzioaren ziurtagiria. Aurkezten ez bada, behin-behineko IFZ esleituko da. • Zentsu aitortpena sinatzen duen pertsonaren identifikazio fiskaleko zenbakiaren fotokopia; sinatzailea fundazioaren ordezkaria izan behar da. • Zentsu aitortpena sinatzen duen pertsona fundazioaren legezko ordezkaria dela frogatzen duen agiriaren fotokopia (fundazioaren eraketaren eskritura publikoan agertzen bada, ez da beharrezkoa).
❖ Alderdi politikoak (IFZko letra: G)	<ul style="list-style-type: none"> • Eraketa akta, agiri publikoan jaso, estatutuak eta sustatzaileen identifikazioa jasotzen dituen, jatorrizkoa eta kopia baimendua, eta fotokopia. • Barne Ministerioaren Alderdi Politikoaren Erregistroko inskripzioaren ziurtagiria (inskripzioak berekin dakar nortasun juridikoa). • Zentsu aitortpena sinatzen duen pertsonaren identifikazio fiskaleko zenbakiaren fotokopia; sinatzailea zuzendaritzako karguduna edo legezko ordezkaria izan behar da. • Zentsu aitortpena sinatzen duen pertsona alderdi politikoaren legezko ordezkaria edo zuzendaritzako karguduna dela frogatzen duen agiria, jatorrizkoa eta fotokopia (eraketa aktan agertzen bada, ez da beharrezkoa).
❖ Sindikatuak (IFZko letra: G)	<ul style="list-style-type: none"> • Sortzeko erabakia eta estatutuak, jatorrizkoak edo kopia baimenduak eta fotokopiak; bidezko aldizkari ofizialean argitaratuta egon behar dira, Bitartekaritza, Arbitraje eta Adiskidetze Erakundearen (autonomia

	<p>erkidegoak horren gaineko eskumena badauka, bertako organoan) utzi ondoren.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sindikatuek nortasun juridikoa lortzen dute estatutuak gordailatzen direnetik hogeit egun baliodun pasatutakoan. • Zentsu aitortpena sinatzen duen pertsonaren identifikazio fiskaleko zenbakiaren fotokopia; sinatzailea zuzendaritzako karguduna edo legezko ordezkaria izan behar da. • Eskatzailea sindikatuaren legezko ordezkaria edo zuzendaritzako karguduna dela frogatzen duen agiriaren fotokopia (eraketa aktan agertzen bada, ez da beharrezkoa).
❖ Erakunde erlijiosoak (IFZko letra: R)	<ul style="list-style-type: none"> • Espainian eratuta edo ezarrita dagoela frogatzen duen agiri sinesgarria, eskritura publiko bihurtua. • Justizia Ministerioaren Erakunde Erlijiosoaren Erregistroko inskripzioaren ziurtagiria (inskripzioak berekin dakar nortasun juridikoa). Erregistro hori Madrilen dago; erregistro orokor eta bakarra da Estatuko lurralde osorako. • Zentsu aitortpena sinatzen duen pertsonaren identifikazio fiskaleko zenbakiaren fotokopia; sinatzailea erregistroan aurkeztu beharreko legezko ordezkarien zerrendako legezko ordezkarietako bat izan behar da. Atzerritarra bada, Espainiako legezko egoiliarra frogatu behar du indarreko legeriarekin bat etorritz. • Zentsu aitortpena sinatzen duen pertsona entitatearen legezko ordezkaria dela frogatzen duen agiria, jatorrizkoa eta fotokopia (eraketa aktan agertzen bada, ez da beharrezkoa).
❖ Enpresen aldi baterako batasunak "EABB" (IFZko letra: U)	<ul style="list-style-type: none"> • Eskritura publikoa, jatorrizkoa zein kopia baimendua, eta fotokopia: eskrituran ondoko datuak jasoko dira: sozietatearen izena (elkarteko kide den enpresa baten, zenbaiten edo denen izena) eta ondoren "Enpresen Aldi Baterako Elkarte, 18/1982 Legea". • Zentsu aitortpena sinatzen duen pertsonaren identifikazio fiskaleko zenbakiaren fotokopia; sinatzailea EABBren ordezkaria izan behar da. • Zentsu aitortpena sinatzen duen pertsona EABBren legezko ordezkaria dela frogatzen duen agiria, jatorrizkoa eta fotokopia (eskritura publikoan agertzen bada, ez da beharrezkoa).
❖ Herri administrazioak eta haien menpeko nortasun juridikodun erakundeak (IFZko letrak: P, Q, S)	<ul style="list-style-type: none"> • Eraketaren araua edo erabakia aldizkari ofizialean argitaratu zeneko fotokopia. • Zentsu aitortpena sinatzen duen pertsonaren identifikazio fiskaleko zenbakiaren fotokopia; sinatzailea gaitasun nahikoa duen karguduna edo legezko ordezkaria izan behar da. • Zentsu aitortpena sinatzen duen pertsona legezko ordezkaria dela edo lege gaitasun nahikoa duela frogatzen duen agiria, jatorrizkoa eta fotokopia.

❖ Itun batzarrak (IFZko letra: V)

- Eraketaren eskritura publikoa eta estatutuak (administrazio eskudunak onartuak), jatorrizkoak zein kopia baimenduak, eta fotokopiak.
- Zentsu aitortpena sinatzen duen pertsonaren identifikazio fiskaleko zenbakiaren fotokopia; sinatzailea gaitasuna daukan karguduna edo legezko ordezkaria izan behar da.
- Zentsu aitortpena sinatzen duen pertsona zer den frogatzen duen agiria, jatorrizkoa eta fotokopia (eskritura publikoan agertzen bada, ez da beharrezkoa).

2.- Eskaera: Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateen (EEAE) IFZ. 037 eredu

Atal honetan azalduko da zer agiri aurkeztu behar duten ohiko EEAEek.

ALTA	DOKUMENTAZIOA
<p>✓ Eskaera: Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (IFZ)</p> <p>IFZ lortu nahi dutenek hitzordua eskatu behar dute telefonoz (945181555, astelehena – ostirala, 8 - 14,30) edo internetez (www.araba.eus).</p> <p>037 eredu bete behar da laguntza programaren bidez; programa hemen eskura daiteke: www.araba.eus. Dokumentazioa norberak eraman behar du Arabako Foru Ogasunera.</p>	
<p>❖ Sozietate zibilak eta ondasun erkidegoak “SZ eta OE” (IFZko letrak; J eta E, hurrenez hurren)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Eraketa dokumentu publikoa edo pribatua, jatorrizkoa zein kopia baimendua, eta fotokopia; ondoko datuak jaso behar ditu: bazkide edo erkide guztien identifikazioa, bakoitzak sozietatera edo erkidegora ekarritako dirua edo ondasunak, bakoitzaren partaidetza kuota, sozietatearen edo erkidegoaren xedea, izena eta egoitzak (sozietate egoitza eta zerga egoitza). Bazkide edo erkide guztiek sinatuta egongo da. Bazkideek ondasun higiezinak edo eskubide errealak ekarri gero, sozietate zibila agiri publikoan eratuko da. • Zentsu aitortpena sinatzen duen pertsonaren identifikazio fiskalaren zenbakiaren fotokopia; bazkidea, erkidea edo partaidea izango da, edo haietako baten legezko ordezkaria; legezko ordezkaria izanez gero, ordezkartza frogatzen duen dokumentua aurkeztuko du, jatorrizkoa eta fotokopia. • Bazkide edo erkideen identifikazio fiskalaren zenbakiaren fotokopia. • Ondasun higiezinaren errentamendua xede duten erkidegoek ondarean dauzkaten higiezinaren eskuraketa eskrituren fotokopiak aurkeztuko dituzte.
<p>❖ Nekazaritza ustiategiaren titulartasuna partekatzen duten entitateak “TPko entitateak” (IFZko letra: E)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Nekazaritza ustiategiaren eraketaren kontratu pribatua edo horren titulartasun partekatuen adierazpenaren agiri sinesgarria (jatorrizkoa eta fotokopia), honako datu hauek ematen dituenak: nortzuk diren titularrak (ezkontideak, erregistro publikoan inskribatutako izateko bikoteko kideak), beren partaidetza kuotak eta erkidegoaren xedea. Titular guztiek sinatuta egon behar da. • Bazkide guztien identifikazio fiskaleko zenbakien fotokopiak. • Zentsu aitortpena sinatzen duen pertsonaren IFZren fotokopia; titulartasun partekatua dutenen legezko ordezkaria izan behar da. • Zentsu aitortpena sinatzen duen pertsona legezko ordezkaria dela frogatzen duen agiria, jatorrizkoa eta fotokopia (eraketa aktan agertzen bada, ez da beharrezkoa).

	<p>Identifikazio fiskaleko zenbakia eskuratutakoan nekazaritzako ustategien erregistroan alta emateko eskatu behar da; horretarako kasuan kasuko Nekazaritzako Eskualde Bulegora joan behar da edo, bestela, Nekazaritza Saileko Koordinazio eta Aurrekontu Kudeaketa Zerbitzura (Probintzia plaza, 4 – 1. sol. ezk., Gasteiz – lehengo bulego teknikoak).</p>
❖ Jaraunspen banatugabeak (IFZko letra: E)	<ul style="list-style-type: none"> • Jaraunspen jasogabea badela frogatzen duen agiria eta jaraunsteen eta haien partaidetzaren (ehunekoa) zerrenda. • Zentsu aitortpena sinatzen duen pertsonaren IFZren fotokopia. Eskatzaile horrek jaraunlea edo legezko ordezkaria izan eta hori egiaztatzen duen agiriaren fotokopia aurkeztu behar du.
• Testamentu bidezko oinordetza	<ul style="list-style-type: none"> • Azken Nahien Erregistro Orokorren ziurtagiriaren fotokopia. • Testamentuaren fotokopia; Azken Nahien Erregistro Orokorrean dagoenarekin bat etorri behar du. • Jaraunsteak nortzuk diren eta bakoitzaren partaidetza kuota zehazteko testamentugilearen azken nahia hartuko da aintzat: <ul style="list-style-type: none"> • Jaraunsteen izen-abizenak adierazi baditu, denen NANen fotokopiak aurkeztu behar dira, edo nortasuna frogatzen duen beste agiri batenak. • Jaraunsteak modu generikoan adierazi baditu, hori egiaztatzen duen dokumentua aurkeztuko da. • Jaraunspena onartu ez dela argitzen duen idazkia, jaraunste guztiek sinatua.
• Testamentu gabeko legezko oinordetza	<ul style="list-style-type: none"> • Azken Nahien Erregistro Orokorren ziurtagiriaren fotokopia. • Abintestato jaraunste bakarrak hildakoaren ezkontidea edo izatezko bikotekidea (Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean, izatezko bikoteak arautzen dituenean, ezarritakoaren arabera eraturako bikotea), ondorengoak edo aurrekoak badira, jaraunsteen adierazpena nabaritasun aktaren bidez egingo da. Gainerako jaraunsteek bide judizialera joko dute jaraunste adierazpena eskuratzeko. • Jaraunspena onartu ez dela argitzen duen idazkia, jaraunste guztiek sinatua.
• Testamentu ahalordeari lotutako jaraunspena	<ul style="list-style-type: none"> • Kausatzailearen heriotzaren ziurtagiriaren fotokopia. • Azken Nahien Erregistro Orokorren ziurtagiriaren fotokopia. • Testamentua (jatorrizkoa eta fotokopia); jaraunspenaren legezko ordezkariaren izeba agertu behar da. • Zentsu aitortpena sinatzen duen pertsonaren IFZren fotokopia; jaraunspenaren legezko ordezkaria izan behar da.

	<ul style="list-style-type: none"> • Jaraunspeneko ondasun guztien inbentarioa, komisarioak egina (5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa; 34. artikulua).
❖ Jabeen erkidegoa (IFZko letra: H)	<ul style="list-style-type: none"> • Erkidegoaren akten liburua, jatorrizkoa. • Akten liburuaren lehen orrialdearen fotokopia; liburuaren eginbideak Jabetza Erregistroak behar bezalako eginda egongo dira. Kalearen izena edo zenbakia arribidekoarekin bat ez badator, arribidekoa dela frogatzen duen ziurtagiria aurkeztuko da, udalak emana. • Zentsu aitortpena sinatzen duen pertsonaren identifikazio fiskalaren zenbakiaren fotokopia; erkidegoaren lehendakaria edo administratzailea izan behar da. • Erkidegoaren lehendakariaren edo administratzailearen izendapena jasotzen duen aktaren edo agiriaren fotokopia.
❖ Talde politikoak (IFZko letra: V)	<ul style="list-style-type: none"> • Udalbatzetako talde politikoek eraketa idazkiaren fotokopia aurkeztuko dute. Idazkia taldeko kide guztiek sinatuta eta udalbatzako idazkari nagusiak zigilatuta egongo da. • Zentsu aitortpena sinatzen duen pertsonaren identifikazio fiskaleko zenbakiaren fotokopia; sinatzailea gaitasuna daukan karguduna edo legezko ordezkaria izan behar da. • Sinatzaileak gaitasun nahikoa duela edo legezko ordezkaria dela frogatzen duen agiriaren fotokopia. <p>Zentsu kudeaketa errazteko eta azkartzeko, talde politikoei ez zaie baja emango agintaldi bat amaitzen den bakoitzean ez alta emango hurrengoa hasten denean. Hala ere, talde bat hurrengo agintaldia eratuko ez bada, ordezkariak taldearen bajaren berri eman beharko du. Gainera, taldeak bete gabe dituen zerga betebeharra bete beharko ditu (aitorpen informatiboak).</p>
❖ Guztien esku dauden auzo mendien erkidego titularrak (IFZko letra: V)	<ul style="list-style-type: none"> • Mendiaren titulartasunaren agiria, jatorrizkoa zein kopia baimendua, eta fotokopia. • Erkidegoaren estatutuak; onarpena mendia dagoen lurraldeko udal justiziaren lehen organoaren aurrean formalizatu behar da. • Zentsu aitortpena sinatzen duen pertsonaren identifikazio fiskaleko zenbakiaren fotokopia; entitatearen ordezkaria izan behar da. • Zentsu aitortpena sinatzen duen pertsona legezko ordezkaria dela frogatzen duen agiria (jatorrizkoa eta fotokopia).

❖ Beste batzuk	<ul style="list-style-type: none"> • Entitatea eratu dela frogatzen duen agiria. • Erregistroko kopia, behar den kasuetan. • Zentsu aitortpena sinatzen duen pertsona entitatearen legezko ordezkaria dela frogatzen duen agiriaren fotokopia.
----------------	---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

3.- Eskiera: ALTA ematea pertsona juridikoei eta beste entitate batzuei zergadunen erroldan. 036 eredua

ALTA	DOKUMENTAZIOA
<ul style="list-style-type: none"> ✓ 036 eredua laguntza programaz baliatuz egin eta bidali behar da, Egoitza elektronikoan (www.araba.eus) sartuta (salbuespena: behin-behineko IFZ eskatu behar denean). ✓ IFZ EZ badago erregistratuta Arabako Foru Ogasunaren datu basean, ALTAko zentsu aitortpen bat bakarrik aurkez daiteke Egoitza elektronikoaren bidez. ✓ Aldiz, IFZ Arabako Foru Ogasunean erregistratuta badago, sistemak erroldan aldaketak egiteko ALDAKETAKo zentsu aitortpen bat bakarrik egiten uzten du. 	<ul style="list-style-type: none"> • Aurkeztu beharreko dokumentazioa alta eman nahi diren datu blokeen arabera izango da. Aldaketetan (hurrengo orrialdeak) datu bloke bakoitzean adierazten diren agiriak aurkeztu behar dira.

4.- Eskaera: jarduera ekonomikoa egiten duten pertsona fisikoei eta errentak esleitzeko araubidean dauden entitateei (EEAE) zergadunen erroldan ALTA ematea. 037 eredua

ALTA	DOKUMENTAZIOA
<p>✓ 037 eredua Egoitza elektronikoaren bidez aurkezten bada, sistemak ALTAko zentsu aitopen bat bakarrik uzten du aurkezten IFZ EZ badago erregistratuta Arabako Foru Ogasunaren datu basean.</p> <p>Aldiz, IFZ Arabako Foru Ogasunean erregistratuta badago, sistemak erroldan aldaketak egiteko ALDAKETAKo zentsu aitopen bat bakarrik aurkezten uzten du.</p> <p>✓ Jarduera ekonomikoa egiten duten pertsona fisikoek eta EEAEek hitzordua eska dezakete Arabako Foru Ogasunak zentsu aitopena betetzeko, nahitaez Internet bidez aurkeztu behar denean izan ezean.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Pertsona fisikoa izanez gero, NAN/AIZen fotokopia. Zerga egoitza Araban badago eta NAN/AIZen ez bada helbidea agertzen, bizi den udalerriko errolda ziurtagiria aurkeztu behar da, edo Araban bizi dela frogatzen duen beste agiriren bat (alokairu kontratua, lan kontratua...). • Zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan ez duten errentak esleitzeko araubideko entitateek egoitza dagoen lurraldeko zerga administrazioak emandako IFZren fotokopia aurkeztu behar dute. • Aurkeztu beharreko dokumentazioa alta eman nahi diren datu blokeen arabera izango da. Aldaketetan (hurrengo orrialdeak) datu bloke bakoitzean adierazten diren agiriak aurkeztu behar dira.

5.- Eskaera: pertsona juridikoak eta beste entitate batzuk ALDATZEA zergadunen erroldan. 036 eredua

036 eredua Internet bidez aurkeztu behar da Egoitza elektronikoa erabiliz. Izapideak egiteko behar den dokumentazioa zentsu aitortpenari erantsi behar zaio.

ALDAKETA	DOKUMENTAZIOA
<p>✓ 036 eredua laguntza programaz baliatuz egin eta bidali behar da, Egoitza elektronikoa (www.araba.eus) sartuta (salbuespena: behin-behineko IFZ eskatu behar denean).</p> <p>✓ Aldiz, IFZ Arabako Foru Ogasunean erregistratuta badago, sistemak erroldan aldaketak egiteko ALDAKETAko zentsu aitortpen bat bakarrik aurkezten uzten du.</p>	
<p>✓ Eskaera: IFZa, behin-behinekoa edukita</p> <p>Oharra: Arabako Foru Ogasunak ofizioz emango die identifikazio fiskaleko zenbakiaren egiaztagiria Arabako Merkataritza Erregistroan 2019ko otsailaren 1etik aurrera inskribatutako merkataritzako sozietateei (sozietate anonimoak eta mugatuak).</p> <p>Beraz, kasu horietan EZ da egin behar eskaerarik zentsu ereduaren bidez.</p> <p>Gainerako kasuetan 036 eredua nahitaez aurkeztu behar da Egoitza elektronikoa bidez (www.araba.eus) behin betiko IFZ eskatzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Erregistro egokiko inskripzioaren ziurtagiria.
<p>✓ Eskaera: IFZ egiaztatzen duen agiri berria</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ez da aurkeztu behar ezer.
<p>✓ Aldaketa: identifikazio datuak, egoitza eta harremanetarako datuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Harremanetarako datuak aldatzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Ez da aurkeztu behar ezer.
<p>✓ Aldaketa: identifikazio datuak, egoitza eta harremanetarako datuak:</p>	<p><i>Bi kasuetan, zerga egoitza Araban badago:</i></p>

<ul style="list-style-type: none"> ✓ Sozietatearen izena aldatzea ✓ Sozietatearen egoitza aldatzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Sozietatearen izena edo sozietatearen egoitza aldatu dela egiaztatzen duen eskrituraren fotokopia edo haren fede ematen duen agiria. • Behar denean, erregistro publikoko inskripzioaren ziurtagiria. <p><i>Bi kasuetan, zerga egoitza Araban ez badago:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Administrazio eskudunak emandako IFZren egiaztigiriaren fotokopia.
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Aldaketa: identifikazio datuak, egoitza eta harremanetarako datuak: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Zerga egoitza aldatzea 	<p><i>Zerga egoitza Araban badago:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Ez da aurkeztu behar ezer. <p><i>Zerga egoitza Araban ez badago:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Administrazio eskudunak emandako IFZren egiaztigiriaren fotokopia. <p>Oharra: Zerga egoitza Arabatik ateratzeko edo Arabako ekartzeko eskatzen bada (sozietatearen egoitza aldatu gabe), entitatearen legezko ordezkariak sinatutako idazkia aurkeztu behar da, honako hau adierazten duena berariaz: egoitza horretan daudela zentralizatuta negozioen kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza. .</p>
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Aldaketa: identifikazio datuak, egoitza eta harremanetarako datuak: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Forma juridikoa aldatzea 	<p><i>Zerga egoitza Araban badago:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Forma juridikoa aldatu dela egiaztatzen duen eskrituraren fotokopia edo haren fede ematen duen agiria. • Behar denean, erregistro publikoko inskripzioaren ziurtagiria. <p><i>Zerga egoitza Araban ez badago:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Administrazio eskudunak emandako IFZren egiaztigiriaren fotokopia. <p>Oharra: <i>Honelakoetan IFZ berria esleitzen zaio entitateari.</i></p>

<p>✓ Aldaketa: identifikazio datuak, egoitza eta harremanetarako datuak:</p> <p>✓ Jakinarazpenetarako helbidea aldatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ez da aurkeztu behar ezer.
<p>✓ Aldaketa: legezko ordezkariak</p>	<p>✓ Sozietatearen legezko ordezkariak agertzen diren titulua.</p>
<p>✓ Aldaketa: balio erantsiaren gaineko zergaren inguruko datuak</p>	<p>Elkarte batek SALBUESPENA eskatuz gero, honako hauek aurkeztu behar dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Elkartearen estatutuak. • Eraketa akta. • Eusko Jaurlaritzaren elkarten erregistroko inskripzioaren ziurtagiria. • Estatutuetan ez bada zehazten berariaz entitatearen lehendakariaren kargua ordaindutakoa den ala ez, elkartearen idazkariak egindako ziurtagiria, kargua ordaindutakoa den ala ez adierazten duena.
<p>✓ Aldaketa: balio erantsiaren gaineko zergaren inguruko datuak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Errentamendu jardueraren bajaren eskaerarekin batera amaitutako errentamenduaren kontratuaren fotokopia aurkeztu behar da, edo, bestela, errentamendua amaitu dela adierazten duen agiria, errentatzaileak eta errentariak sinatua.
<p>✓ Eskaera: alta Batasunaren barruko Eragileen Erregistroan</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Batasunaren barruko proformako fakturaren fotokopia.
<p>✓ Aldaketa: sozietateen gaineko zergaren inguruko datuak</p> <p>✓ Sozietatearen ekitaldiaren hasiera / amaiera eguna aldatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Entitatearen ekitaldia jasotzen duen eskrituraren fotokopia edo haren fede ematen duen agiria. • Erregistro publiko batean inskribatuta egon behar bada, inskripzioaren ziurtagiria.
<p>✓ Sozietateen gaineko zerga: zerga finkapeneko araubidea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • ALTA, bakarrik: Zerga finkapeneko araubidea aukeratzeko, taldeko sozietateek hartutako erabakien fotokopia.
<p>✓ Balio erantsiaren gaineko zerga: entitate taldearen araubide berezia</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezia aplikatzeko entitateek hartutako erabakien fotokopia.

6.- Eskaera: jarduera ekonomikoa egiten duten pertsona fisikoak eta errentak esleitzeko araubidean dauden entitateak (EEAE) ALDATZEA zergadunen erroldan. 037 eredia

ALDAKETA	DOKUMENTAZIOA
<p>✓ Jarduera ekonomikoa egiten duten pertsona fisikoek eta EEAEek hitzordua eska dezakete Arabako Foru Ogasunak zentsu aitortpena betetzeko, nahitaez Internet bidez aurkeztu behar denean izan ezean.</p>	
<p>✓ Aldaketa: identifikazio datuak, egoitzak, eta harremanetarako datuak Pertsona fisikoa. Nazionalitate bikoitza</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Nazionalitate bikoitza egiaztatzen duen agiria
<p>✓ Aldaketa: identifikazio datuak, egoitzak, eta harremanetarako datuak Pertsona fisikoa. Izen-abizenak aldatzea EEAE: Sozietatearen izena aldatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Pertsona fisikoa: NAN / IEZ / Pasaportearen fotokopia • EEAE: Sozietatearen izena aldatu dela agertzen den eskrituraren edo dokumentu pribatuaren fotokopia eta, behar denean, erregistro publiko bateko inskripzioaren ziurtagiria
<p>✓ Aldaketa: identifikazio datuak, egoitzak, eta harremanetarako datuak EEAE: Sozietatearen egoitza aldatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • EEAE: Sozietatearen egoitza aldatu dela agertzen den eskrituraren edo dokumentu pribatuaren fotokopia eta, behar denean, erregistro publiko bateko inskripzioaren ziurtagiria
<p>✓ Aldaketa: identifikazio datuak, egoitzak, eta harremanetarako datuak Pertsona fisikoa eta EEAE: Zerga egoitza aldatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Pertsona fisikoa: Zerga egoitza Araban badago eta NAN/AIZen ez bada agertzen, bizi den udalerriko errolda ziurtagiria aurkeztu behar da, edo Araban bizi dela frogatzen duen beste agiriren bat (alokairu kontratua, lan kontratua...).

	<p>Egoitza Arabako Lurralde Historikoaren barruan aldatzen bada, ez da ezer aurkeztu behar.</p> <ul style="list-style-type: none"> • EEAE: Sozietatearen izena aldatu dela agertzen den eskrituraren edo dokumentu pribatuaren fotokopia eta, behar denean, erregistro publiko bateko inskripzioaren ziurtagiria
<p>✓ Aldaketa: identifikazio datuak, egoitzak, eta harremanetarako datuak Pertsona fisikoa eta EEAE: Jakinarazpenetarako egoitza aldatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ez da aurkeztu behar ezer.
<p>✓ Legezko ordezkari aldatzea (pertsona fisikoa eta EEAE)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Pertsona fisikoa adingabea izateagatik: familia liburu osoaren fotokopia eta aitaren, amaren edo tutorearen NAN/AIZren fotokopia. • Pertsona fisikoa ezgaitasun judizialagatik: Legezko ordezkariaren ebazpen judizialaren fotokopia. • EAEE: Entitatearen legezko ordezkariak agertzen diren titulua.
<p>✓ Familia unitatearen datuak aldatzea (pertsona fisikoa)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Senar-emazteak edo Eusko Jaurlaritzaren aurrean inskribatutako izatezko bikotea: Familia liburuaren fotokopia edo Erregistro Zibilaren edo Eusko Jaurlaritzaren izatezko bikoteen erregistroaren ziurtagiria. • Epai bidez ezkontza desegin edo senar-emazteak dibortziatuz gero edo izatezko bikotea deseginez gero: banaketaren edo dibortzioaren epai judiziala edo Eusko Jaurlaritzaren ebazpena. • Ezkontide bat hilez gero: Heriotza ziurtagiria, Erregistro Zibilak egindakoa, edo heriotza frogatzen duen beste dokumenturen bat (eskela). • Seme edo alabaren bat hilez gero: Familia liburuaren fotokopia.
<p>✓ Aldaketa: balio erantsiaren gaineko zergaren inguruko datuak Lokalen errentamendu jardueraren bajaren eskaera (pertsona fisikoa eta EEAE)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Errentamendu jardueraren bajaren eskaerarekin batera amaitutako errentamenduaren kontratuaren fotokopia aurkeztu behar da, edo, bestela, errentamendua amaitu dela adierazten duen agiria, errentatzaileak eta errentariak sinatua.
<p>✓ Aldaketa: balio erantsiaren gaineko zergaren inguruko datuak Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian baja emateko</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian baja emateko eskatuz gero, eskaerarekin batera administrazio eskuduneko nekazaritzako ustategien erregistroaren edota mahastien erregistroaren ebazpena edo antzeko dokumentua aurkeztu behar da,

eskaera (pertsona fisikoa eta EEAE)	nekazaritzako jarduerari baja eman zaiola adierazten duena.
✓ Eskaera: alta Batasunaren barruko Eragileen Erregistroan (pertsona fisikoa eta EEAE)	<ul style="list-style-type: none"> • Batasunaren barruko proformako fakturaren fotokopia.
✓ Bazkideei, kideei edo partaideei buruzko datuak aldatzea / Helbidea Arabako Lurralde Historikotik kanpo duten errentak esleitzeko araubideko entitateetako kide, bazkide eta partaideei buruzko komunikazioa	<ul style="list-style-type: none"> • Entitateko bazkideak / partaideak nortzuk diren eta bakoitzaren partaidetza ehunekoa zenbatekoa den adierazten duen dokumentu publiko zein pribatuaren fotokopia.

7.- Eskaera: BAJA ematea pertsona juridikoei eta beste entitate batzuei zergadunen erroldan. 036 eredua

036 eredua Internet bidez aurkeztu behar da Egoitza elektronikoa erabiliz. Izapideak egiteko behar den dokumentazioa zentsu aitortpenari erantsi behar zaio.

BAJA	DOKUMENTAZIOA
✓ 036 eredua laguntza programaz baliatuz egin eta bidali behar da, Egoitza elektronikoan (www.araba.eus) sartuta.	
✓ Pertsona juridiko eta entitateen erabateko baja	<ul style="list-style-type: none"> • Desegitea, irenspena, bat egitea eta azkentzeko beste arrazoi batzuk: erregistro publiko egokian inskribatutako eskritura publikoa. Gainerako kasuetan, entitatea azkendu dela frogatzen duen dokumentua.

8.- Eskaera: jarduera ekonomikoa egiten duten pertsona fisikoei eta errentak esleitzeko araubidean dauden entitateei BAJA ematea zergadunen erroldan. 037 eredua

BAJA	DOKUMENTAZIOA
<p>✓ Jarduera ekonomikoa egiten duten pertsona fisikoek eta EEAEek hitzordua eska dezakete Arabako Foru Ogasunak zentsu aitortpena betetzeko, nahitaez Internet bidez aurkeztu behar denean izan ezean.</p>	
<p>✓ Pertsona fisikoen erabateko baja</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Heriotza ziurtagiria
<p>✓ EEAEen erabateko baja</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Entitatea azkendu dela frogatzen duen dokumentu publikoa edo pribatua eta, behar den kasuetan, erregistro publiko egokiko inskripzioa, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren likidazioarekin.

9.- Eskaera: jarduera ekonomikorik gabeko pertsona fisikoen ALTA, ALDAKETA edo BAJA. 009 eredua

ALTA	DOKUMENTAZIOA
<p>✓ 009 eredua Egoitza elektronikoaren bidez aurkezten bada, sistemak ALTAko zentsu aitortpen bat bakarrik uzten du aurkezten NAN/AIE EZ badago erregistratuta Arabako Foru Ogasunaren datu basean.</p> <p>Aldiz, NAN/AIZ Arabako Foru Ogasunean erregistratuta badago, sistemak erroldan aldaketak egiteko ALDAKETAko zentsu aitortpen bat bakarrik aurkezten uzten du.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • NAN/AIZen fotokopia. Zerga egoitza Araban badago eta NAN/AIZen ez bada helbidea agertzen, bizi den udalerriko errolda ziurtagiria aurkeztu behar da, edo Araban bizi dela frogatzen duen beste agiriren bat (alokairu kontratua, lan kontratua...).
<p>✓ 14 urtetik beherako IFZren eskaera</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Familia liburuaren fotokopia eta aitaren, amaren edo tutorearen NAN/AIZren fotokopia.

ALDAKETA	DOKUMENTAZIOA
✓ Aldaketa: identifikazio datuak, egoitzak, eta harremanetarako datuak Nazionalitate bikoitza	<ul style="list-style-type: none"> Nazionalitate bikoitza egiaztatzen duen agiria
✓ Aldaketa: identifikazio datuak, egoitzak, eta harremanetarako datuak Izen-abizenak aldatzea	<ul style="list-style-type: none"> Pertsona fisikoa: NAN/AIZen fotokopia.
✓ Aldaketa: identifikazio datuak, egoitzak, eta harremanetarako datuak Zerga egoitza aldatzea	<ul style="list-style-type: none"> Zerga egoitza Araban badago eta NAN/AIZen ez bada agertzen, bizi den udalerriko errolda ziurtagiria aurkeztu behar da, edo Araban bizi dela frogatzen duen beste agiriren bat (alokairu kontratua, lan kontratua...). Egoitza Arabako Lurralde Historikoaren barruan aldatzen bada, ez da ezer aurkeztu behar (009 eredua sinaturik, besterik ez).
✓ Aldaketa: identifikazio datuak, egoitzak, eta harremanetarako datuak Jakinarazpenetarako egoitza aldatzea	<ul style="list-style-type: none"> Ez da aurkeztu behar ezer.
✓ Aldaketa: identifikazio datuak, egoitzak, eta harremanetarako datuak Harremanetarako datuak aldatzea	<ul style="list-style-type: none"> Ez da aurkeztu behar ezer.
✓ Aldaketa: legezko ordezkaritza Adingabetasunagatik Ezgaitasun judizialagatik	<ul style="list-style-type: none"> Adingabetasunagatik: familia liburuaren fotokopia eta aitaren, amaren edo tutorearen NAN/AIZren fotokopia. Ezgaitasun judizialagatik: Legezko ordezkartzaren ebazpen judizialaren fotokopia.
✓ Familia unitatearen datuak aldatzea	<ul style="list-style-type: none"> Senar-emazteak edo Eusko Jaurlaritzaren aurrean inskribatutako izatezko bikotea: Familia liburuaren fotokopia edo Erregistro Zibilaren edo Eusko Jaurlaritzaren izatezko bikoteen erregistroaren ziurtagiria. Epai bidez ezkontza desegin edo senar-emazteak dibortziaz gero edo izatezko bikotea deseginez gero: banaketaren edo dibortzioaren epai judiziala edo Eusko Jaurlaritzaren ebazpena.

	<ul style="list-style-type: none"> • Ezkontide bat hilez gero: heriotza ziurtagiria, Erregistro Zibilak egindakoa, edo heriotza frogatzen duen beste dokumenturen bat (eskela). • Seme edo alabaren bat hilez gero: familia liburuaren fotokopia.
<p>✓ Espainiara lekualdatutako langileen araubide bereziari buruzko jakinarazpena.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Enplegatzaile batekin lan edo estatu harremanak (arruntak zein bereziak) hasi badira Espainian: <ul style="list-style-type: none"> • Enplegatzaileak emandako frogagiria, lana Espainian egingo dela egiaztatzen duena eta datu hauek zehazten dituena: zergadunarekiko lan edo estatutu harremanak, noiz ekin zaion jarduerari (Espainiako Gizarte Segurantzaren altan ezarritako data), zein den lan zentroa eta non dagoen, eta lan kontratuaren iraupena. • Lekualdatzea enplegatzaileak agindu badu Espainiako egoiliar den enpresa edo entitate bati edo Espainian dagoen establezimendu iraunkor bati zerbitzuak egiteko: <ul style="list-style-type: none"> • Enpresak, entitateak edo establezimenduak zerbitzugintza aitortzeko emandako frogagiria. Frogagiri horrekin batera enplegatzailearen lekualdatze gutunaren kopia aurkeztuko da, eta bertan, aurreko aitortpenaz batera jarduerari noiz ekin zaion (data hau Espainiako Gizarte Segurantzaren altan edo, bestela, jatorrizko gizarte segurantzaren legeriarekin jarraitzea ahalbideratzen duen dokumentazioan ageri da), lan zentroa zein den eta non dagoen eta lekualdatzeak zenbat iraungo duen zehaztuko da, eta lana Espainian egingo dela egiaztatu.

BAJA	DOKUMENTAZIOA
<p>✓ Pertsona fisikoen erabateko baja</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Heriotza ziurtagiria